

Ziklope maltzurak inguruko erresuma guztiak izututa ditu. Eguzkiaren Erreinuko printzea bahitu duela entzundakoan, Danielak eta bere tripulazioak hura salbatzeko erabakia hartzen dute.

Baina zein arrisku izugarri egin beharko diote aurre?



DANIELA PIRATA
180.000
liburu baino
gehiago salduta

Daniela Pirataren beste abentura batzuk



ISBN: 978-84-10074-27-9 www.nubeocho.com



DANIELA ETA ZIKLOPE MALTZURRA



Susanna Isern & Gómez



DANIELA PIRATA ETA ZIKLOPE MALTZURRA

SUSANNA ISERN
& GÓMEZ





é

É G A L I T É

Daniela Pirata eta ziklope maltzurra

Egalité bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2024

© irudiena: Gómez, 2024

© argitalpenarena: NubeOcho, 2024

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2024

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Oinarritzko ideia: Susanna Isern eta Luis Amavisca.

Jatorrizko izenburua: *Daniela Pirata y la malvada cíclope*

Lehen argitaraldia: Urtarrila, 2024

ISBN: 978-84-10074-27-9

Gordailu Legala: M-512-2024

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

DANIELA PIRATA ETA ZIKLOPE MALTZURRA



SUSANNA ISERN
& GÓMEZ

nubeOCHO



ZIKLOPE MALTZURRA urruneko irla ezkutu batean bizi zen.
Mendi bat bezain handia eta indartsua zela zioten zurrumurruek, kopetaren
erdian **BEGI BELDURGARRI** bat zuela, aiurri txarra eta **GOSE ASEEZINA**.

Inguruko irletako biztanleak ziklopearen
BELDUR bizi ziren.



Haurrek ere emakume erraldoi haren inguruko
ISTORIO IKARAGARRIAK kontatzen zituzten.

Egun batez, Eguzkiaren Erreinuko **PRINTZEAK**
bere aita erregearekin hitz egin zuen. Erabaki
bat hartua zuen.



—Aita, **ZIKLOPEAREN** bila joango naiz eta sekula gehiago
inori minik ez emateko eskatuko diot.

Printzeak errege-guardia bildu zuen eta itsasoan barneratu ziren.

Baina irlara iritsitakoan, ziklopeak **USTEKABEAN** harrapatu zituen basoa zeharkatuz.

—Hara, nolako ezustekoa! Ez dut inoiz printzerik dastatu. Ziur oso gozoa dagoela —esan zuen ziklopeak—. Gizendu egingo zaitut eta ondoren dilistekin **JANGO ZAITUT**.



Errege-guardiak **IHES EGITEA** lortu zuen eta Eguzkiaren Erreinura itzuli zen gertatutakoa kontatzeko.



Ziklopea **ERRALDOIA** zen, eta **OSO INDARTSUA**. Nola lortuko zuten hura garaitzea?

Erregeak **ADIERAZPEN** bat zabaldu zuen bere agindupeko lurretan.



Ziklope maltzuraren irilatik printzea erreskatatzea lortzen duenak erregearen harribitxi guztiak jasoko ditu ordainsari gisa.

DANIELA eta **KAIMAN BELTZEKO** tripulazioa taberna batean bazkaltzen ari ziren, bapatean, paretan zintzilik, mezu hura ikusi zutenean.

—Eguzkiaren Erreinuko printzea **ARRISKUAN** dago! —egin zuen oihu Daniela kapitainak.



—Eta sari ederra eskaintzen dute ordainetan, baina ziklopea **OSO ARRISKUTSUA** dela diote —gehitu zuen eskifaiako pirata batek.

—Horrek berdin dio. **GARAITU EGINGO DUGU!** —erantzun zuen Danielak, segurtasun handiz.

Kaiman Beltza printzearen erreskatera
abiatu zen. Bidean **SORGINAK, BIKINGOAK**
zein **ARKULARIAK** topatu zituzten.

Ziklope maltzurak garaitu ostean etxera bueltan
zihoazen, etsita.

—Hobe zenukete zuek ere buelta eman eta etxera itzuli.
Ziklopea **GARATEZINA** da! —ohartarazi zituzten.

Baina Danielak argi zuen hartutako erabakia, eta ezerk
edo inork ez zuen iritziz aldaraziko.

